

“Gure aldetik egunerokotasunean marko horri aurre egin behar diogu begirada kritikoa landuz eta iruditegi horri kontrairuditegi bat sortuz”

Nagore Legarretarekin solasean



Ander Zangitu Orbea
Arkitektoa

Jasotze data: 2020-10-04
Onartze data: 2020-11-13

Nagore Legarreta argazkilaria dugu portadan. Bere gorputzetik, beste gorputzetatik pasatu eta gure gorputzetara ekarrita. Orrialde hauetako galdera eta erantzunen jokoa irakurri baino lehen, hartu zure denbora eta joan bere lanak ezagutzera. Arakatu bere proiektuak, begiratu, isildu, pentsatu, imajinatu, hausnartu, eta galdetu zeuen buruei. Zer dira? Non gaude? Zer nahi du transmititu? Zergatik sortzen dit sentsazio hau? Zuekin...

Aldiri: Nondik dator argazkilaritzarako gerturatzea?

Nagore: Kazetaritzaren munduan hasi nintzen lanean Ikus-entzunezko Komunikazioan ikasketak burutu ostean. Bertan argazkilaritzarekin lehen kontaktua izan nuen eta errealitatea interpretatzera gerturatzen hasi nintzen. Azkenean nire errealitate propioa islatzen hasi nintzen.

A: Zure begiradaren luzapen gisa uler daitezke egiten dituzun argazkiak?

N: Bai, guztiz. Argazkilaritza beti egon da, eta kulturalki, gauzak dokumentatzera eta katalogatzera. Gaur egun argazkilaritza, geroz eta gehiago, aspektu askotan aldatu egin da, eta horren adibide dira argazkilaria ezberdinen lanak eta begirada askotarikoak.

A: Zure lanetan gorputz eta lekuek kutsu desitxuratu bat dutela nabari da. Elementu ez-zehaztu hauetatik zer azaleratu nahi da?

N: Egia da hasierako lanetan eta Hysteron-en gehienbat agertzen diren gorputzek desitxuratuak ematen dutela.

Gerora pixkanaka-pixkanaka modu garbiagoan erretratatu ditut. Itxura desenfokatu horren atzean agertzen diren gorputz horiek dira errealak. Errebisatu behar genuke gorputz errealaz pentsatzen dugunean zer datorkigun burura. Asko lan egin dut askatasun-deiadarra egiteko asmoarekin, gorputzetan zentratuz eta erreindibikazio indibiduala eta kolektiboa eginez.

A: Zelan eragiten digu gure gorputzen eraikuntzan gaur egun pairatzen ari garen argazki-kontsumo masiboak?

N: Nahiz eta begirada kritiko bat izan, azkenean egunero-egunero, tantaka-tantaka... jasotzen ditugun erreferentziazko irudi horiek guregan eragiten dute. Egia da inertzia eta joera dagoela gauzak modu batera ulertzeko, ikusteko edo sentitzeko. Dirua eta diruaren industria dago honen atzean. Eta finean min egiten dute, eta gure aldetik egunerokotasunean marko horri aurre egin behar diogu begirada kritikoa landuz eta iruditegi horri kontrairuditegi bat sortuz.

A: Portadara eramanez gure begirada. Gorputz bat ikus daiteke, atzealdetik eta biluzik. Zer transmititu eta adierazi nahi da?

N: Gorputzek duten adierazpenarekin eta nola hitz egiten duten lan egitea asko gustatzen zait. Maila irrazionalean lan egitea gustatzen zait, bat-batekotasunetik. Maila arrazionalean gorputzek ezkutalekuak eta tranpak baliatzen dituzte beren buruak adierazteko. Maila irrazionalean eta intuitiboan gorputza zintzoagoa dela iruditzen zait. Azaleko irudian, dorpetasun bat nabari daiteke: gorputz okertu bat, alde baterantz doala... Dorpetasun erreal horrekin lan egitea interesatzen zait.

A: Elementu ikusezinak plasmazten dituzu?

N: Bai, hor daude eta ikusezinak dira aldi berean. Tentazioak, emozioak... gidatuta egiten dut lan. Gauzen zergatia eta aztertzea gerora etortzen dira. Orainak eta momentuan sentitzen dudanak gidatzen nau argazkiak ateratzera. Gerturaztea asmaezina dela esan daiteke.

A: Susan Sontag-ek zioen «ez dagoela mila hitz baino gehiago balio duen argazki askorik». Zer iritzi duzu horren inguruan?

N: Ba bai, egia da asmatzea oso zaila dela. Azkenean erronka da esanahi ezberdinen bidegurutzean kokatzen diren irudiak sortzea, adiera ezberdinak pizteko aukera ematen duten irudiak nolabait, leku zehatz batean kokatuta daudenak aldi berean. Argazkilariok, eta nire moduan lan egiten dugunok, argazki poetikoagoak egiten ditugu, testuingurua aintzat hartzen eta azkenean ezkutuan dauden gauzak azaleratzen ditugu. Nire erronka zentzu horretan gauza horiek transmititzea da.

A: Espaziora eta arkitekturara gerturatu, zer erlazio planteatzen duzu arkitekturarekiko?

N: Momentu honetan saiatzen ari naiz gorputz hauek arkitektura baten barruan kokatzen. Orain arte ez dut egin, argazkiaren formatura mugatzen nintzen. Orain arte jorrotutako paisaiak naturarekin lotutakoak dira eta azkenaldian pixkanaka-pixkanaka biak lotzen ari naiz, argazkitik kanpo dauden elementuak irudiarekin harremanetan jartzen. Ez dira bakarrik argazkiak, materialak lantzen eta elementu desberdinak sartzen hasi naiz; finean agertoki bat jartzen. Arkitekturara lehen gerturatzeko bat dela esan daiteke? Ez dakit, errespetu handia diot diziplina horri.

A: Bizitzen ari garen egoera berri honetan, uste duzu doktrinamendu berri bat pairatzen ari garela gure gorputzetan?

N: Koronabirusaren testuinguru hau errematea da. Denbora beharko du gorputzak pentsatzen hasteko bizitakoaz eta gauzak azaleratzeko. Egoera honetan arkitekturaren politikak eragin du, gure gorputzetan zuzenean eraginez. Horren aurrean artea gauzak aldatzeko lanabesa denez, argazkien bidez alda daiteke.

A: Etorkizunerako lanen harira, norabide-aldaketa bat planteatzen duzu edo lan-ildo honetan jarraituko duzu?

N: Gorputzen errebolta lanean ari naiz eta bere garaian eginiko Hysteron proiektuaren jarraipen gisa uler daiteke. Orain arte emakumeen gorputzetan oinarritu naiz eta hemendik aurrera gorputz guztietara zabaltzeko asmoa daukat.

Informazio gehiago: <http://www.nagorelegarreta.com/>

===



Egilea ~ Mikel Remak.